

Gimnasioa

Ideia:

Ideia hau hasiera batetik argi izan genuen, taldekide batzuk futbolzaleak dira, beste bat saskibaloian dabil eta horregatik gimnasioa presente dago beraien bizitzetan. Inspirazio-iturri bezala, Bergarako Agorrosineko gimnasioa hartu dugu, hau ez dago egoera oso onean, gainera nahiko txikia da eta jende asko sartu gabe gelditzen da. Ikusi dugunarengatik ere, konturatu gara gero eta jende gehiago dagoela osasun arazoekin, adibidez; gizentasuna.



Baloretzko proposamena:

Gimnasio zerbitzu hau eskainiko dugu erabili nahi duen guztiarentzat, hori bai gehien bat osasun arazoak dituztenentzat sortu dugu, eta bezeroak esperientzia hobe bat izateko elementu hauek gehitu ditugu:

- Entrenatzaile eta entrenamendu pertsonalak
- Azken belaunaldiko makinak
- Dieta bereziak
- Spa eta masaje zerbitzuak
- Denda bat bertako produktuak erosteko: proteina, kreatina, etab.